

ENPRESAREN PARTAIDETZA EREDU INKLUSIBOA GERO ETA SENDOAGO ARI DA EZARTZEN GIZARTEAN

Eusko Jaurlaritzak, ASLEk eta Europako Batzordeak (EB) antolatutako jardunaldi batzuetan hartu du parte ALEk

Enpresaren partaidetza eredu inklusiboa, gure elkarteak garatu eta sustatutakoa, nabarmen indartu da bai Euskadiko bai estatuko ekonomia eta gizarte sarean, Eusko Jaurlaritzak, ALEk eta ASLEk antolatutako Enpresaren Partaidetza Ered Inklusiboa Bultzatzeko Jardunaldiari esker. Jardunaldi hori joan den ostegunean, abenduaren 3an, egin zen Bilbon.

Jardunaldia Iñigo Urkullu Lehendakariak inauguratu zuen, eta Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Enplegu eta Lan sailburuak itxi zuen. Bertan, Miguel Angel Laspiur gure presidenteak, Jose Luis Madinagoitia elkarteko kide eta proiektuaren arduradunak, Jon Azkue Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak, Tomas Arrieta Lan Harremanen Euskal Kontseiluko presidenteak eta Kepa Olivares ASLEko presidenteak parte hartu zuten. Agerian geratu zen benetako enpresa partaidetuan langileek beren kapital sozialean parte hartzen dutela, boto eskubidearekin, eta kudeaketan eta emaitzetan parte hartzea elementu osagarriak direla eta azken helburu hori lortzen lagun dezaketela.

Miguel Angel Laspiurrek eman zion hasiera jardunaldiari, eta honako hauek ekarri zituen gogora: pertsonek enpresan izan beharreko parte hartzeari buruz hausnartzen hasi zenetik elkarteak egin duen jarduera guztia; Pasuen Foroa eratu zenekoa; EAEn eta Nafarroan, sentsibiltate politiko, enpresarial eta sindikal askotariko pertsonekin eta eragileekin mintegi bana egin zenekoa; eta enpresaren partaidetza eredu inklusiboa landu zenekoa. Aipatutako eredu hori berretsi egin zen 2018ko irailaren 27an Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Legez Besteko Proposamenarekin, eta Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean 2018ko ekainaren 18an emandako mozioarekin, bi ganbera horietako talde parlamentario guztien aho bateko babesarekin.

Bestalde, ASLEk Lan Sozietateen eta Enpresa Partaidetuen Lege berriaren zirriborroa aurkeztu zuen. Lege horrek orain daukaguna, 2015ekoa, aldatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak eskatuta egin da, langileek enpresan parte hartzeko eredua erregularizatzeko, zeina mugatuta baitago langileek kapital sozialean parte hartzera. Eta uste da konfrontazioan oinarritutako eredu batetik lankidetzan eta erantzunkidetasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko faktore erabakigarria dela. Gainera, ASLEko Ana Irazabalek eta ALEko Martin Mugikak langileek kapitalean parte har dezaten

errazteko pizgarri fiskalak aipatu zituzten, iruditzen baitzaie zerga araudi argi bat eta aldeko interpretazioak behar direla, zergak ordaintzeko aurretiazko akordioak lortu ahal izateko.

Jose Luis Madinagoitiak erreferentzia zehatz batzuk eman zituen enpresaren partaidetza eredu inklusibo bat egiteko, enpresa bakoitzaren errealitate espezifikora egokituta aplikatu daitekeena, eta enpresa partaidetuen balioa nabarmendu zuen lehiakortasunari, gizarte kohesioari, iraunkortasunari, talentuaren garapenari, lurraldean errotzeari eta erantzukizun komunitarioari dagokienez. Tomas Arrietak, bestalde, nabarmendu zuen hierarkian oinarritutako enpresaren eredu tradizionala gainditu egin behar dela, lan harremanen konfrontazio eskema sortzen baitu; halaber aipatu zuen kudeaketa partaidetuko ereduetan aurrera egin behar dela, batez ere kapitalaren partaidetzan, eta, azkenik, azpimarratu zuen prozesu horretan enpresa eta sindikatu eragileak sartu behar direla.

Iñigo Urkullu lehendakariak enpresaren partaidetza eredua “gaur inoiz baino gehiago” bultzatzearen alde egin zuen, “enpresa berritzaile, lehiakor eta iraunkor baten bermea delako, bere lurraldean ondo errotuta dagoena, non kide guztiek norabide berean lan egiten duten”, eta bere gobernuak horrelako konpainien garapenean duen konpromisoa eta horiei ematen dien babesa adierazi zituen.

Antzeko adierazpenak egin zituen bigarren lehendakariorde eta Enplegu eta Lan sailburu Idoia Mendiak ere. Oraintxe daukagun krisi egoeran enpresa partaidetuek erakutsi duten erresilientzia eta berrikuntza gaitasuna nabarmendu zituen. Hala, adierazi zuen 2021. urtea horrelako konpainien urtea izango dela, eta, beraz, bere sailaren babesa jasoko zutela adierazi zuen, eredu hori bultzatuko baitute.

Ekitaldian hiru foru aldundietako Ekonomia Sustapeneko diputatuek eta Nafarroako Gobernuako Enpresa Politika, Nazioarteko proiektzio eta Laneko zuzendari nagusiak ere parte hartu zuten, eta beren lurraldeetan langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzeko egiten ari diren jarduerak azaldu zituzten.

Bestalde, Gizarte Ekonomiako Europako Eskualdeen ESER 2020 ekimenean parte hartu du ALEk, Euskadi ordezkatzuz. Han, landu duen partaidetza eredu inklusiboaren berri eman zuen. Jardunaldia atzo egin zen, hilak 8, eta aukera paregabea izan zen Europako Batzordearen (EB) aurrean enpresa eredu humanistago, parte hartzaileago eta, horrenbestez, lehiakorrago, iraunkorrago eta gizarte kohesio handiagoko baten aldeko aldarrikapena egiteko.